

BESTE NORAKOAK PLAZA EMAN ETA ONARTU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK

1. GARRANTZITZUA
2. KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA
3. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA
 - 3.1. Mugikortasuna hasi baino lehen
 - 3.1.1. Fitxa ofiziala eta baldintzei onespena emateko dokumentua
 - 3.1.2. Istripu eta aberriratze aseguru
 - 3.2. Mugikortasuna hastean
 - 3.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria
 - 3.3. Mugikortasuna amaitzean
 - 3.3.1. Certificate of attendance / Egonaldi amaierako ziurtagiria
 - 3.4. Dokumentazioaren laburpen-taula
4. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA
5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"
6. BEKAK

1. GARRANTZITZUA

Behin eman zaizun mugikortasuna onartu eta gero, uneoro inprima ditzakezu behar dituzun dokumentuak Nazioarteko Harremanetarako webetik deskargatu eta gero. (baliteke horietakoren bat egonaldian zehar gaitzea).

Mugikortasun-programako zure parte-hartzea behar bezala izapidetzea 3. puntuko dokumentuak Leioako Nazioarteko Harremanetako Bulegora (ORI) (movilidad.internacional@ehu.eus) epeetan bidaltzearen baitan egongo da. Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa- kontratua eta diru-laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake.

Oso garrantzitsua da kontaktu gisa eman duzun posta elektronikoa martxan edukitzea eta maiz berrius dezazula, ORI ikasleekin komunikatzeko modua delako.

Maiz kontsultatu Errektoreordetzaren webgunea. Baliteke inprimaki batzuk egonaldian zehar prestatzea, eta baliteke ere beste inprimakiren bat sartzea.

2. KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

Behin zure helmuga jakiten duzunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko zara ikasketa-gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta LEARNING AGREEMENT-KONPROMISO AKADEMIKOA betetzeko, kontuan hartuko dira ikaslearen betebeharretan adierazitako jarraibideak, elkartruke-programetan parte hartzeko arauak eta mugikortasun-programaren deialdiko oinarriak.

Trukeko ikaslea izanez gero, **konpromiso akademikoa egin behar duzu nahitaez**, aurretik paperean egina izan arren; izan ere, konpromiso hori zure matrikulari eta ondorengo noten espedienteari lotuta dago.

Konpromiso akademikoa egin ezean, EHUKo ikasle gisa matrikulatuta agertuko zara, baina EZ trukeko ikasle gisa. Hartara, ezin izango dituzu baliozkotzeak egin, eta ez da inon agertuko mugikortasun-programa batean parte hartu duzula.

Matrikula EHUn egingo duzu automatrikulako sistemaren bidez, argitaratzen diren datetan.

Garrantzitsua da konpromiso akademikoaren edozein aldaketa zure koordinatzaileari jakinaraztea; baita aldatzeko asmoa ere.

3. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA

3.1. Mugikortasuna hasi **baino lehen**

3.1.1. **Fitxa ofiziala eta baldintzei onespenu emateko dokumentua**

Dokumentu horiek bidaliko dira harremanetan eman duzun posta elektronikara eta sinatuta itzuli beharko dituzue

3.1.2. Istripu eta aberriratzea aseguru

Atzerrira joan **aurretik**:

Bidaiarako **aseguru gehigarri bat** egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Aseguru horen ordainketaren kopia bat aurkeztu beharko da koordinatzaileak Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatu ahal izateko. Aseguruaren kopia hau aurkezten EZ bada, ez da Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatuko eta ikaslea programatik at geratuko da eta salbuetsita geratuko da Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa- prozesuetatik eta EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

Aseguruaren baldintzei buruzko informazio gehiago aurkituko duzu mugikortasun programaren webgunean, Merkataritza Ganberaren atalean, 5. puntuan.

3.2. Mugikortasuna hastean

3.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria

EHUko Nazioarteko Harremanetarako webetik deskarga dezakezu.

Helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, erakunde horretan sartu zareneko data berresten duena.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia hasi baino lehenagokoa.](#)

3.3. Mugikortasuna amaitzean

3.3.1. Certificate of attendance / Egonaldi amaierako ziurtagiria

EHUko Nazioarteko Harremanetarako webetik deskarga dezakezu.

Helmugako unibertsitatean egindako egonaldia bukatzen duzunik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu posta EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora helmugako ikastegiak

emandako ziurtagiria, egonaldiaren amaiera eta egonaldiaren hasierako eta bukaerako datak berresten dituena.

Behin entregatzeko epea bukatu eta **Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorpen akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da**, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun- programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia amaitu baino lehenagokoa.

3.4. Dokumentazioaren laburpen-taula

Bekaren lehen ordainketa jasotzeko kudeatzea (70%)	Mugikortasuna hasi AURRETIK	Konpromiso akademikoa eta matrikula	Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzailearekin harremanetan jarri
		Fitxa ofiziala eta baldintzak onartzea	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus
		Asegurua eta Europako Osasun Txartela	Bidali poliza eta ordainketako banku-ziurtagiria Ikastetxeko edo fakultateko Koordinatzaileari
	Mugikortasuna HASTEAN	Hasierako ziurtagiria/ Certificate of arrival	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus
Bekaren bigarren ordainketa jasotzeko kudeatzea (gainontzekoa)	Mugikortasuna AMAITZEAN	Amaierako ziurtagiria/ Certificate of attendance	Bidali Nazioarteko Harremanetarako bulegoari movilidad.internacional@ehu.eus

4. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOIA

- Jarraibideak

Arretaz irakurri

- Helmugarako inskripzio-orria

Ez da beharrezkoa kasu guztietan. Kontsultatu zure ikastegiko koordinatzailearekin eta, BEHARREZKOA BADA, inprimatu, bete eta eman koordinatzaileari helmugako unibertsitatera bidal dezan, berak eska diezazukeen dokumentazio gehigarriarekin batera.

- Learning agreement

Zure koordinatzailearekin harremanetan jarri behar duzu betetzeko.

5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena emateko gomendatzen du. Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren zerbitzu elektroniko honetan ikasleak harremanetarako datuak eguneratu ahal izango ditu, premiazko kasuetan haiekin harremanetanjarriahal izateko.

<https://www.visatur.maec.es/viajeros/>

6. BEKAK

Zure mugikortasunari dagozkion bekei buruzko informazioa kontsultatu ahal izango duzu, eta EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren bidez kobratuko duzu, **laguntza ekonomikoen erlaitza kontsultatzen Nazioarteko Harremanen webgunean**, deialdiak ezagutu ondoren gaitzen denean.

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGOA

Sarriena auzoa z/g, Bibliotekako eraikina 2.solairua

48940 Leioa (Bizkaia)

Tfnoa.: 94 601 2000

E-maila: movilidad.internacional@ehu.eus